

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA HAREN SEKTORE PUBLIKOAREN ERAKUNDEAREN ZUZENTASUN SISTEMA

SISTEMA DE INTEGRIDAD
INSTITUCIONAL DE LA
DIPUTACIÓN FORAL DE
GIPUZKOA Y DE SU
SECTOR PÚBLICO

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

Zuzendaria:

Goizeder Manotas
Modernizazioaren, Zerbitzuen
eta Informazio Gizarterako
Sistemen zuzendari nagusia

Koordinatzailea:

Xabier Barandiaran
Diputatu Nagusiaren
Kabineteko burua

Argitalpena:

2016ko iraila

Argitarapena:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde gisa ezinbestekoa zaigu herritarren konfiantza sendotzea. Xede horrekin garatu ditugu Erakundearen Zuzentasun Sistema aitzindaria eta zortzi printzipio eta zortzi baliotan oinarritzen den Jokabide Kodea. Kode horrek jokabide eta jardunbide arau propioak ditu eta kargudun publikoen, zuzendarien eta Foru Aldundiko langileen zuzentasuna eta eredugarritasuna indartzea du helburu.

Gipuzkoa eredugarri bat eraikitzeko konpromisoa hartu dugu eta etxean bertan hasiko gara lanean, Gipuzkoako Foru Aldundian.

Markel Olano Arrese

Diputatu nagusia

Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako Erakundearen Zuzentasun Sistemak argi erakusten du euskal erakunde publikoek etikaren eta eredugarritasunaren aldeko apustu garbia egin dutela azken hamarraldian.

Gobernantza onaren gaietan aurreratuago dauden mendebaldeko herrialdeak ahalegin ikaragarria egiten ari dira azken urte hauetan beraien azpiegitura etikoak sendotzeko eta, ondorioz, zintzotasunaren kultura sortzeko, ustelkeria eta egokiak ez diren jarrera publikoak saihesteko, eta erakunde ikusezintzat har daitekeen herritarren konfiantza babesteko. Izan ere, sekula baztertu behar ez dugun legatu garrantzitsua da, behin puskatuz gero oso zaila baita berriro eraikitzea.

Halaber, euskal erakundeak urrats garrantzitsuak egiten ari dira noranzko horretan. Lehena, Eusko Jaurlaritzak onartu zuen goi kargudunen Etika eta Jokabide Kodea izan zen, gerora hainbat forotan praktika onaren eredutzat aipatu izan dena. Esperientzia horren ondoren beste batzuk ere izan dira, besteak beste, Bilboko Udalarena, proposamen honi erantzunez EUDELeK emandako hasierako bultzada, eta orain gutxi aurkeztu dugun hau: Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako Erakundearen Zuzentasun Sistema, eta Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea.

Euskadin aginte politikoak sustatu dituen zuzentasun politikak ez dira inoiz gertaeren erantzun gisa etorri, zuhurtasunezko neurri gisa baizik. Europako Batzordeak 2012an eta 2014an egin zituen azterketek erakutsi dute Euskadi lehen autonomia erkidegoa dela kalitate instituzionalari begira, eta ez alferrik. Azterketen adierazle garrantzitsuetako bat zuzentasun instituzionala izan zen, hain zuzen. Eraitza hori ez da harritzekoa; gai publikoak kudeatzeko zintzotasuna beti izan da gure herriaren izaeraren parte. Are gehiago, zintzotasuna, seriotasuna, elkartasuna eta lana Gipuzkoako idiosinkrasian ondo errotutako balioak dira. Esan baino nahiago dugu egin, eta, gainera, balio berezia

ematen diogu aldarrikatutakoa egiteari.

Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu duen Erakundearen Zuzentasun Sistema ez da eskandaluei aurre egiteko prestatu den eredu bat; izan ere, gure artean ez dago joera hori, gauzatu nahi dugun politika positiboari lotutako jarduketa publiko arduraduna bultzatu nahi baitugu, Foru Aldundiko kargu publiko, zuzendari eta langileen akatsik gabeko jokabide publikotik abiatuta, Gobernantza Etikoa presente dagoen ingurune bat bermatzea xedetzat hartuta, horrela herritarrek foru erakundeak legitimotzat har ditzaten. Gure helburua Gipuzkoa eredugarri bat eraikitzea da, eta horixe da lurraldeko erakunde publiko guztietara iritsi beharko lukeen goiburua. Horregatik, zeregin hori “etxetik” bertatik hasi dugu: Foru Aldunditik.

Sistema hau abiarazteko esperientzia lehenengoa izan da arlo horretan Estatu osoan. Egia da Eusko Jaurlaritzaren Kodeak oinarriak jarri zituela, OCDEren proposamenak eta beste eredu konparatu batzuk oinarritzat hartuta. Asko zor diogu tresna etiko horri. Baina Aldundian beste urrats bat ere egin nahi izan dugu. Ez dugu foru administrazio eredugarri bat lortuko Foru Aldundiko kargu publikoen balioa bakarrik zabalduz; izan ere, kargudunez gain, langile publiko, emakidadun, kontratista eta foru administrazioaren baliabide publikoak jasotzen dituen Gipuzkoako elkarte sare trinko eta zabal horretako edozein erakunde publikotara ere zabaldu behar da sistema hau. Asko dugu irabazteko. Gainera, OCDEren planteamendua izateaz gain, Europako Kontseiluaren ikuspegia ere bada. Eta lerro aitzindari honetan ari gara lanean.

Halaber, gure Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean jasotako balio eta printzipioei erantsi behar zaizkie, alde batetik, eduki etikoa duten Jokabide Arauak eta, bestetik, Jarduketa Arauak, kudeaketa ona gauzatzeko beharrezkoak diren printzipio hauek jasotzen dituztenak: gardentasuna, datu irekiak, konpromiso soziala eta desburokratizazioa,

besteak beste. Planteamendu berezia da, erakunde ezberdinek prestatutako beste kode batzuetan orain arte erabili gabekoa; izan ere, aztertu ditugun kodeek bi dimentsioak -Etika eta Gobernantza Ona- nahasten dituzte, gure ustez, sistema jakin bat erabili gabe, eta kontuan hartu behar da irismen ezberdinekoak direla.

Foru Aldundiko kargudunei dagokienez, Erakundearen Zuzentasun Sistema abian jartzeko hautua egiteak eredu berri bat eraikitzea esan nahi du, eta eredu horrek kultura etikoa sustatzea, praktika okerrak saihestea eta dilema etikoak, kekak eta salaketak sustatzeko eta konponbidean jartzeko kanal egokiak ezartzea du helburu; halaber, berme organo bat ezarri nahi da -Etika Batzordea- arazo horiei guztiei erantzun zuzenak eta zentzudunak emateko. Hartu diren neurrien artean, besteak beste, kreditu txartelak kendu dira, ibilgailu ofizialen erabilera ekitaldi instituzionaletara mugatu da eta erregistro bat eratu da protokolozko otordu, bidai eta gastuak jasotzeko.

Edonola ere, haratago joan nahi izan dugu eta gure inguru hurbilean ezohikoa den erabaki bat hartu dugu. Aldundiaren Etika Batzordean kanpoko adituak gehiago izango dira "etxekoen" aldean -gure inguru hurbileko eruedetan ohikoa ez dena, kanpokoak 3 eta etxekoak 2-. Eta hori garrantzitsua den bezalaxe funtzionamendu independentea bermatzeko, garrantzia dauka ere batzordeak hartu ditzakeen ebazpen edo akordioak gida aplikagarri batzuetan jasotzea, horiek baliagarriak izango baitira etikarekin edo gatazka interesgarriekin lotutako dilemak konpontzeko.

Balio horiek barneratu nahi ditugu, barneratu behar ditugu, horixe baita gakoa. Irrotasunez hartu dugu erronka eta hura burutzeko konpromiso sendoa dugu. Euskaldunok -eta gipuzkoarrok bereziki- arduraz eta balio sendoei eutsiz jokatu izan dugu geure egin ditugun jarduera profesional guztietan, eta halaxe egin behar dugu aurrerantzean. Baita sektore publikoan ere.

Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako Erakundearen Zuzentasun Sistema pertsona talde baten lanaren ondorioa da, beraien ahaleginari esker baitago abian. Bereziki eskertu nahi ditut Globernance taldea eta Konstituzio Zuzenbideko katedraduna den Rafael Jiménez Asensio jauna, eman diguten laguntzagatik, eta Modernizazioaren, Zerbitzuen eta Informazio Gizarterako Sistemen zuzendari nagusi Goizeder Manotas andrea, eskaini duen dedikazioagatik, eta Diputatu Nagusiaren Alorraren Kabineteko buru Xabier Barandiaran jauna, egin duen tutoretza lanagatik.

Imanol Lasa

Gobernantza eta Gizartearekiko
Komunikazioko diputatua

Sarrera

XX. mende amaieran, ELGEK zuzentasun esparruen eredia osatu zuen (integrity frameworks), antolaketa testuinguru jakin batzuetan, zuzentasunaren kudeaketa bideragarri izan zedin. Esparru horien barne tresna, prozesu eta egitura batzuk zehaztu zituen. Horien baitan, funtsezko tresnetako bat Kode Etikoak edo Jokabide Kodeak ziren, baita prestakuntza jarduketak eta interes gatazken kudeaketa ere. Halaber, aipatutako kode horiek kudeatzeko prozesu edota bideak sortzea ere proposatu zuen. Eta, azken finean, zuzentasun esparru horietako funtsezko ataletako bat berme organoak ziren (Etika Batzordeak edo etikaz arduratzen diren mandatariaik).

2016ko otsailaren 9ko saioan “Gobernantza Etiko, Zentzudun Eta Eraginkorrerako Konpromisoak” izenekoan onartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko foru Kargu publikoen jokabidea eta jarduera zehazten dituzten Balio eta Printzipioak, Erakundearen Zuzentasun Sistemaren esparruan; eta testu horretan bertan iragarri zen hurrengo pausoa Erakundearen Zuzentasun Sistema bat diseinatu eta abian jartzea zela.

Berririo azpimarratu behar da Zuzentasun Politika batek arestian aipatutako helburuei; hau da, jokabide estandarrak indartu eta esparru publikoko eraginkortasuna areagotzeko, estaldura eta sinesgarritasuna emateko adinako aurrekontua behar duela.

Iraganean eta bestelako testuinguruetan egin den moduan (batzuk oso gertukoak gainera), Kode Etikoak edo Jokabide Kodeak onartzeak ez du ezertarako balio, baldin eta printzipioak bakarrik zehazten badituzte; hau da, inolako aplikazio eskakizun edo exijentziarik gabe. Gai publikoak kudeatzeko orduan seriotasuna eta ardura erakutsi behar dira, eta horrek etika publikoaren eta etengabeko hobekuntzaren aldeko ekintzak gauzatzeko konpromisoa eskatzen du. Hori guztia, bai jokabide moralen esparruan, bai kudeaketa publikoko esku-menak gauzatzeko orduan ere.

Beraz, ELGEK berak (baita funtzio publikoaren esparruan ere) zein demokrazia aurreratu batzuek eta gertuko erakunde publikoek, besteak beste Eusko Jaurlaritzak, abian jarritakoaren ildoan, Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki du Erakundearen Zuzentasun Sistema eraikitzeke oinarriak ezartzea. Bertan, funtsezko atal gisa, foru kargu publikoen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea ezarriko da, baina bestelako kodeak ere onartuko dira, heinean-heinean, erakunde osoaren azpiegitura etikoa indartzeko osatzen joango direnak, erakundearen Zuzentasun Sistemaren garapena faseka egin behar baita nahitaez. Zuzentasuna ez da Foru Administrazioaren goi mailan eta haren sektore publikoko entitateetan bakarrik eskatu beharreko zerbait, erakunde osoari eta bertan lan egiten duten pertsona guztiei eskatu beharreko zerbait da.

Foru Administrazioan Erakundearen Zuzentasun Politika bat diseinatu eta bultzatzeko orduan, legea betetzera mugatu ordez, horren bidez aurrerapausoak eman beharko liriteke erakundearen zuzentasun esparrua eraikitzeke eta hori eraginkor bihurtzeko; baita kudeaketa publikoan jarduera egokiak aplikatu eta garatzeko ere, era horretan, Administrazioaren errendimendua hobetzeko, eta herritarrek jasotzen dituzten zerbitzuak ere hobetzeko.

Gainera, Erakundearen Zuzentasun Politika “egite prozesuan dagoen” lana da, hau da, hasiera argia dauka, baina ez amaierarik. Kudeaketan aplikatu beharreko erakundearen

zuzentasuna eta jardunbide egokiak etengabeko hobekuntza prozesuak dira, eta horiek hasierako estandarrak gainditu behar dira beti. Beraz, ondorioz, etengabeko ikaskuntza espazioa da, eta halaxe erakutsi dute horrelako Zuzentasun Sistemak abian jarri dituzten herrialde demokratiko aurreratuek.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bai ekintza sozialei dagokionean baita gure gizartez gobernatzeko erari dagokionean ere aldaketa sakon baterantz jo nahi du, herritarrak politika sendo eta komunikatibo bat bezala hauteman dezan, gobernantza onagatik apostu irmoa egiten duena, konfidantza, itxaropena eta ilusioa sortarazten diona. Gobernantza onaren adibidea bihurtu nahi gara, hierarkia eta kontrolean oinarritzean baino kooperazioan oinarritzen dena, non protagonismoa prozesuak, kooperazioa eta konfidantzak eskuratzen duten.

Beraz, Foru Aldundiaren Zuzentasun Politikari beharrezko bultzada ematearen eta hori Foru Aldundiko zein haren sektore publikoko entitateetako maila ezberdinetan aplikatzearen arteko lotura da Erabaki hau.

Erakundearen Zuzentasun Sistema hau sortuz, eta bertan, aurrerago, Foru Administrazioarako eta haren sektore publikoko entitateetako esparru eta kolektibo ezberdinetarako onartzen diren azpiegitura etikoak kokatuz, Gipuzkoako Foru Aldundiak aurrerapauso garrantzitsu eta irmoa ematen du Zuzentasun Politikari benetako bultzada emateko.

Hala, lehenik eta behin, Sistema zer den eta bere helburuak zein diren zehazten hasten da, era horretan, Zuzentasun Esparru horretan funtsezko elementu diren Kodeak aztertzeko. Bereziki garrantzitsua da Zuzentasun Sistema bermatzeko organo bat ala batzuk aurreikustea, bereziki Jokabide Kode edo Gobernantza Onerako Kode jakin batzuen kudeaketa etikoa egin behar bada. Halaber, ereduaren osagarri gisa, kontuak ematea eta zuzentasun politika ebaluatzea ere aurreikusi da.

Bigarren atal batean, beharrezkoa ikusten da Gipuzkoako Foru Aldundiko kideen eta haren sektore publikoko goi kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide egokien Kodea onartzea, gizarte ekintzan eta gobernatzeko moduan aldatzeko konpromisoa zehazten duen oinarritzko azpiegitura etikoa bezala, eta iharduera exekutiboaren eta herritarrei zuzendutako zerbitzuen eredia bihurtzen dena.

1

***Gipuzkoako Foru
Aldundiaren eta haren
sektore publikoaren
erakundearen
zuzentasun sistema.***

ERAKUNDEAREN ZUZENTASUN SISTEMAREN DEFINIZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakundearen Zuzentasun Sistema helburu, printzipio eta berme-erakunde batzuen bidez osatuta dago; eta, horrez gain, gardentasun, kontu emate eta ebaluazio mekanismoak ere baditu, horien bidez, Foru Administrazioaren eta foru sektore publikoaren azpiegitura etikoa eraiki eta zuzentasun politika finkatzeko.

ERAKUNDEAREN ZUZENTASUN SISTEMAREN HELBURUAK

Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakundearen Zuzentasun Sistemaren helburua da zuzentasun kultura garatu eta sustatzea, betiere arduradun eta langile publiko guztiek eta foru publiko zerbitzuak ematen parte hartzen duten pertsona zein entitate guztiek betetzen dituzten funtzioen barne integratuta. Era horretan, azpiegitura etikoa modu eraginkorrean giltzatuko da, eta herritarren aurrean, Administrazio Publikoaren eta bertako kargu zein langile publikoen zuzentasunari, objektibotasunari, eraginkortasunari, gardentasunari edo inpartzialtasunari kalte egin diezaioketen jardunbide okerrak edo jokabide ezegokiak saihestuko dira, hala erakundearen zilegitasuna babesteko.

Horrez gain, foru kargu publiko bakoitzak eta gainerako langileek Kode jakin batzuetara berariazko atxikipena egitea aurreikusi da. Halaber, erakundearen zuzentasun esparru horretako gainerako elementuetara ere atxikiko dira, besteak beste, zuzentasunerako hedapen eta prebentzio sistemetara, eta kontsultak, dilema etikoak, kexak ala salaketak izapidetzeko prozedura zein bideetara.

JOKABIDE KODEAK

1

Erakundearen Zuzentasun Sistemarako oinarrizko tresnak dira Jokabide Kodeak, auto-araudirako dokumentuak dira, era horien bidez, Foru Aldundian eta foru sektore publikoan funtzio publikoak zuzenean ala zeharka betetzen dituzten pertsona guztiek bete beharreko balore, printzipio eta jokabide arauak identifikatzen dira.

2

Jokabide Kodeek gobernantza edo gobernu onerako printzipioak ere zehaztu ahal izango dituzte, baita kudeaketa publikoa garatzeko jardunbide egokien arau zein irizpideak ere.

3

Foru Aldundiaren kideen eta goi kargu publikoen eta langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea onartuko da. Langile baliokidetzat joko dira Foru Aldundiari atxikitako mendeko sektore publikoan goi mailako erantzukizun postuetan dauden langileak.

4

Halaber, enplegu publikoari buruzko araudiaren esparruan, Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko langileentzako Jokabide Kode bat onartuko da, era horretan, bere lana egitean eta funtzio publikoak betetzean, balore publikoak eta azpiegitura etikoa indartzeko. Prozesu horrek izaera parte hartzailea izango du, eta langile publikoen sindikatu ordezkariak presentzia aktiboa izango dute bertan.

5

Espezialitate funtzionalek hala eskatzen dutenean, Foru Aldundiko edo haren sektore publikoko entitateen jarduera publikoko sektoreen Jokabide Kodeak osatu ahal izango dira, hain zuzen ere, kasuan kasu onartzen den Jokabide Kodea garatzeko, kolektibo horietako baloreak, printzipioak eta berariazko arauak arautzeko.

6

Halaber, kontratuak egikaritzean, esleipendunei, emakidadunei eta hornitzaileei balore, printzipio eta jokabide arauak betetzea eskatuko zaie, hala badagokio, betiere dagozkion aldaketekin, baldin eta herritarrei zerbitzu publikoak eskaintzen badizkiete edo ondasun publiko jakin batzuk hornitzen badituzte.

7

Ildo berean, kontratazio eta diru laguntza prozeduretan balore zein estandar etiko edo jokabide estandar jakin batzuk betetzea eskatu ahal izango da, eta kontratuaren edo diru laguntzaren xede den jarduera egitean, horiek errespetatu beharko dira.

BANAKAKO ATXIKIPENA

1

Jokabide Kode jakin batera atxikitzean, pertsonak borondate argia erakusten du bertan zehaztutako balore, printzipio eta jokabide arauak betetzeko, bere jokabidea eta jarduera balore, printzipio eta arau horien arabera izan dadin, Foru Aldundiaren irudia eta zuzentasuna babestuta gera dadin eta bere funtzio zein eginbeharrak behar bezala betetzeko.

2

Foru Administrazioak kasuan kasu onartzen dituen Jokabide Kodeek banakako atxikipenerako sistemak ezarriko dituzte.

3

Dagokion Kodeko balore, printzipio eta jokabide arauetara atxikitzea derrigorrezko baldintza bada, atxikipen hori egitea funtsezko baldintza izango da pertsona edo entitate baten izendapen edo kontratazioa egiteko.

4

Kasuan kasu Foru Aldundirako lan egiten duen pertsonalarentzako onartzen den Kode Etikoak edo Jokabide Kodeak kode deontologiko izaera izango du, eta beraz, langile publikoek derrigorrez bete beharko dute, banakako atxikipenik egin beharrik gabe. Edonola ere, edozein langile publiko izendatu edo kontratatu baino lehen, aipatutako kodearen

ale bat emango zaio, eta hurrengo atalean xedatutakoari jarraiki, dagozkion prestakuntza jarduerak egingo dira horren irismen eta ondorioak ezagutu ahal izateko.

ERAKUNDE ZUZENTASUNAREN HEDAPEN ETA PREBENTZIO SISTEMAK

1

Erakunde Zuzentasuna osatzen duten balore, printzipio eta arauen hedapen zein prebentzio sistemak ezarriko ditu Foru Aldundiak.

2

Erakunde Zuzentasunaren hedapen eta prebentzio sistema horiek bi jarduera ildoren bidez ezarriko dira batez ere:

2.1

Prestakuntza programen bidez, barne komunikazio bidez edo bestelako euskarrien bidez (bai papera bai euskarri elektronikoak), baita sare sozialen bidez ere ezarriko dira hedapen sistemak. Foru Administrazioak eta haren sektore publikoko entitateek, kargu eta langile publiko berri guztiei harrera emateko programetan, Etika Publikoa eta Erakunde Zuzentasuna lantzeko saioak jasoko dituzte.

2.2

Foru Aldundiak, Erakundearen Etika Batzorde edo Mandatariak hala eskatuta, hedapen eta prebentzio neurrien urteko programa bat osatuko du, horren bidez, Foru Aldundiko eta foru sektore publikoko entitateetako etika azpiegitura indartzeko. Foru kargu publikoek, langile baliokideek eta langile publikoek derrigorrez bete beharko dituzte programa horretan zehazten diren jarduerak.

ERAKUNDEAREN ZUZENTASUN SISTEMA BERMATZEKO ORGANOA

1

Foru Aldundiak organo independente bat sortuko du kasuan kasu onartzen diren Jokabide Kodeetan arautzen diren balore, printzipio eta jokabide arauak bultzatu, sustatu eta horiek betetzen direla bermatzeko. Halaber, berme organo horren funtzio nagusia izango da Foru Aldundiaren irudia kaltetu dezaketen edozein ez-betetzeri edo jokabide desegokiri aurrea hartzea.

2

Organo hori pertsona bakarrekoa (Erakundearen Etika Mandataria) edo anitzekoa (Erakundearen Etika Batzordea) izan daiteke. Kode zehatz bakoitzak organoaren izaera zehaztuko du, baina hala ere posiblea izango da aldez aurretik indarrean dagoen organo bati atxikitzea.

3

Berme organoko funtzioak kargu publikoetan zein kargu baliokideetan proiektatuko dira, baita Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren zerbitzura lan egiten duten langileetan ere. Berme organoaren funtzioak hauek izango dira:

3.1

Onartzen diren Kodeetan ageri diren balore, printzipio eta jokabide arauak hedatu, barneratu eta behar bezala betetzen direla bermatzea.

3.2

Balore, printzipio eta jokabide arauen araberakoak ez diren jarrerei aurrea hartu eta horiek saihestea, Foru Aldundiaren irudia eta giro etikoa bermatzeko.

3.3

Ebazpen, txosten edo oharren bidez, sor daitezkeen zalantza, kontsulta eta dilema etikoak ebaztea.

3.4

Kexak edo salaketak jaso eta horiek bideratzea. Horrez gain, gobernu organoei egindako proposamentzat jo daitezkeen edota Foru Administrazioiko edo horren sektore publikoko erabakien bidez, horiek ebaztea, baldin eta horiek guztiak dagozkion erabakiak hartzeko eskumena badute.

3.5

Azalpen Gidak, Memoriak eta aldian behineko txostenak osatzea organoaren jarduerari buruz, eta beharrezkoa bada, Kodeetan ageri diren edukiak edo egokitzen jotzen diren neurriak aldatzea.

BIDEAK ETA PROZEDURAK

1

Erakundearen Zuzentasun esparruan kontsultak, kexak edo salaketak egiteko prozedura zein bideak zehaztuko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak.

2

Ahal den heinean, prozedura edo bide horiek bitarteko elektronikoko bidez bideratuko dira, beste bideei kalterik egin gabe.

3

Kargu publikoak edo langile publikoak, beren Kodeen aplikazioa dela eta dituzten zalantza edo arazo etikoen zein jokabideari buruzko zalantza zein dilemen kasuan, horiek isilpean bideratzea eskatzeko aukera egongo da.

4

Isilpeko kasuak badira, isilpekotasuna behar bezala betetzen dela bermatu beharko du berme organoak, baita dagokion informazioa behar bezala gordeta dagoela ere. Hala ere,

dagozkion datu pertsonalak ezabatu ondoren, informazio hori argitaratu ahal izango da, baldin eta zuzenean ala zeharka pertsonaren nortasuna ondorioztatu ezin bada.

KONTUAK EMATEA ETA EBALUAZIOA

1

Aldian behin, bai aurrez aurre bai modu telematikoan, Foru Gobernuak, departamentu arduradunak, edo berme organoak, halakorik badago, egindako kudeaketaren berri emango du herritarren eta komunikabideen aurrean, betiere Foru Gobernuak eta bertako kideek politikoki Gipuzkoako Batzar Nagusien aurrean kontuak emateko dituen betebeharrak eragotzi gabe

2

Foru Aldundiak Erakunde Zuzentasun Politiken ebaluazio sistemak sustatuko ditu. Bertan, horretan espezializatutako kanpo erakunde kideek zein entitateek parte hartuko dute, epe homogeneotan zehar, azpiegitura etikoen garapen maila, eta baloreen zein jokabide arauen betetze maila zehazteko.

3

Horrez gain, gardentasun politikaren dimentsio ezberdinen bidez, Foru Aldundiak eta haren sektoreko entitateek kontu emateen eta erakunde zuzentasun politikaren ebaluazioaren emaitzak argitaratuko dituzte aldiari behin.

ERAKUNDEAREN ZUZENTASUN SISTEMAREN BERRIKUSPENA

Kontu emate eta ebaluazio prozesuei jarraiki, eta berme organoaren edo organoen proposamenen arabera, Foru Aldundiak Erabaki honen edukia egokituko du, hau onartu eta hiru urteko epean gehienez.

2

***Gipuzkoako Foru
Aldundiko eta haren
sektore publikoko
kargu publikoen
zein langile
baliokideen jokabide
eta jardunbideegokien
kodea.***

Jokabide eta Jardunbide Egokien Kode hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Zuzentasun Sistemaren barne dago.

Kode honek berezitasun azpimarragarri batzuk ditu.

Bere izaera eta aplikazio eremua da lehen berezitasuna. Foru kargu publikoen jokabide eta jarduera arauen esparruko auto-araudi mekanismoa da Kodea. Foru kargu publikotzat jotzen dira Diputatuen Kontseiluak modu askean izendatutako arduradun publikoak, edo sektore publikoko entitateetan goi mailako ardura karguak betetzen dituztenak.

Kodearen egitura ere berezia da bestelako ereduarekin alderatzen badugu. Alde batetik, Erakunde Zuzentasun Baloreak islatzen dira, eta balore horietako bakoitzari, dagozkion jokabide arauak atxikitzen zaizkio. “Etika edo jokabide” izeneko atala da hori. Kodeko atal horren izaera morala ukaezina da.

Beste alde batetik, Jardunbide Egokietarako edo Gobernantza Onerako printzipioak barneratzen dira. Printzipio horietako bakoitzari ere jarduera arau batzuk atxikitzen zaizkio, eta hain zuzen ere azken horiek aratzen dituzte foru kargu publikoek kudeaketa publikoen esparruan egin beharreko funtzio eta betebeharrak. Kasu honetan, atal horren izaera instrumental edo kudeatzailea kontuan hartu beharrekoa da.

Baina balore, printzipio eta arau horiek guztiek beren zentzua galduko lukete, baldin eta horiekin batera ez badira zuzentasun sistema garatzeko eta sistemaren aplikagarritasuna zein eraginkortasuna bermatzeko aurreikuspenak ematen. Hala, sustapen eta prebentzio neurri batzuk zehazten ditu, baita kontsultak, kexak edo salaketak egiteko prozedurak eta bideak ere; eta azkenik, Erakundearen Etika Batzordean oinarritutako berme sistema bat. Berme sistema horrek osaketa berezia du, Batzorde horretako hiru kide kanpokoak baitira, eta barnekoak, hau da, boto eskubidea dutenak, bi baitira. Era horretan, autokonplazentzia alde batera utzi eta kanpoko ikuspegia gehitu nahi da, Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoko erakundeen jokabide eta kudeaketa estandarrak indartzen laguntzeko.

Kudeaketa etikoko tresna horren inguruan sortzen den Kode eta sistemaren oinarri nagusia Zuzentasun Politika modu positiboan eraikitzea da. Horregatik, bereziki azpimarratzen da prebentzio sistema eraiki behar dela, era horretan, jardunbide okerrik ager ez dadin. Horrez gain, kargu publikoek baloreak, printzipioak eta jokabide arauak zein jarduera arauak hedatu eta “barneratzeko” apustu garbia egin da. Prozesu horretan zehar, Erakundearen Etika Batzordearen papera garrantzitsua da, zalantzarik gabe. Hala ere, prebentzio sistemak huts egiten duenean edo balore zein arauak behar bezala barneratzen ez direnean, Batzordeari gaitzespen eskumen gradualak ematen zaizkio (sortu diren jarrerak eta horiek sortzen dituzten erakunde ondorioen arabera). Muturreko kasuetan, foru kargu publikoa edo langile baliokidea izendatzea proposatu zuen organoari pertsona hori kargutik kentzea eskatuko dio Batzordeak.

Ikuspegi horri jarraiki, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren Sektore Publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema onartzen duen Akordioa onartu eta gero, Foru Gobernuak foru kargu publikoentzako Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea onartzen du.

1 ARAU OROKORRAK

1.1 Xedea eta zertarakoa

1.-Kode hau, goi-mailako administraziorako auto-araudi elementu gisa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren. Zuzentasun Sistemaren barne dago.

2.- Kode honen bidez, balore zein printzipioak ezartzen dira, eta horien esparruan, jokabide edo jarduera arauak. Foru kargu publikoek arau horiek bete eta sustatu beharko dituzte beren funtzioak eta jarduera publikoak betetzean, eta hala dagokionean, baita esparru pribatuko jarduerak egitean ere, horiek jardunean ari diren erakundearen irudia kaltetu badezakete.

3.- Halaber, Kode honen xedea da lehenengo fase bat ezartzea foru administrazioaren eta haren foru sektore publikoko entitateen azpiegitura etikoaren sistema eraikitzeko prozesuan.

1.2 Kodearen izaera

1.- Esparru auto-arautzailea da Kode hau, eta horren bidez, foru kargu publiko guztiak eta bestelako kargu baliokideek, horrekiko konpromisoa erakutsi behar dute, derrigorrez atxikipen konpromisoa sinatuz.

2.- Atxikipen konpromisoaren bidez, ardura publikoak betetzeko orduan, Kodean jasotako baloreak, printzipioak eta jokabide arauak errespetatzeko betebeharra daukate, baita inpaktu publikoa izan dezaketen jarduera pribatuak egitean ere.

3.- Kargu publiko guztiak izendatu eta kontratatu aurretik, Kode honetara atxiki beharko dira. Kodea onartzen denean karguan dauden pertsonak hilabeteko epea izango dute formalki hari atxikitzeko, hain zuzen ere Kodea argitaratzen denetik aurrera.

4.- Halaber, Kode hau bete behar duten pertsonak, interes gatazken, bateraezintasunen eta kargu publikoen zein langile baliokideen estatutuari buruzko lege, Foru Arau eta araudietan xedatutako betebeharrak bete beharko dituzte.

5.-Kode hau tresna bizia da, eta aldi behin, unean-uneko baldintzetara egokituko da, berme organoak igorritako txosten eta proposamenen arabera.

6.- Kode honen edukien egunerapen edo berrikuspena Gobernuaren Kontseiluak onartu beharko du.

1.3 Aplikazio esparrua

1.- Kode hau kargu publiko edo kargu baliokide hauei aplikatuko zaie:

- a) Diputatu nagusiari eta foru Diputatuei.
- b) Zuzendari nagusiei.
- c) Foru sektore publikoko Zuzendari eta Gerenteei.
- d) Foru enpresa publikoetako Administrazio Kontseiluetako kideei.
- e) Foru administrazioari atxikitako kontsultorioetako gobernu organoetako kideei.
- f) Beraien sorrerako arauan edo izendapenean aurreko karguei baliokidetuak izan direnei.
- g) Aholkularitza funtzioa duten behin behineko langileei.

2.- Kode honi dagokionez, kargu publikotzat joko dira aurreko puntuan aipatutako erantzukizuneko postu guztiak.

3.- Kode hau inoiz ez zaie aplikatuko foru administrazioaren zerbitzura edo haren sektore publikoko entitateen zerbitzura lan egiten duten enplegatu publikoei, enplegatu horiek, beste herritarrak bezala, dagokion berme organoari kexak edo salaketak egiteko aukera eragotzi gabe. Kexa edo salaketak modu arinegian edo funtsik gabe aurkezten badira, berme organoak eskumena izango du diziplina espedientea abian jartzea eskatzeko.

2

ERAKUNDEAREN ZUZENTASUN BALOREAK

2.1

Erakundearen Zuzentasun Baloreak

Erakundearen Zuzentasun Baloretzat jotzen dira foru kargu publikoek beren funtzioak bete behar dituzten antolaketaren izaera berezia dela eta sortzen diren kontzeptuak. Kontzeptu edo balore horiek foru kargu publikoen orientabide eta jokabide gida izan behar dira, eta beren jarduera publikoak garatzeko orduan, helburuak zein bitartekoak hautatzeko eragina izan behar dute, baita jarduera pribatuatarakoak hautatzeko ere, baldin eta horiek erakundearen irudian eragina izan badezakete.

2.2

Erakundearen Zuzentasun Baloreen zerrenda

Kargu publikoek beren jardueran bete beharreko Erakundearen Zuzentasun Baloreak hauek dira:

1.- Ordezkaritza

Foru kargu publikoek ordezkaritza organikoko funtzioak beteko dituzte, bai barne esparruan bai kanpo esparruan, erakundearen irudiak eskatzen duen duintasun eta begirunearekin. Beren funtzioak betetzeko orduan, erabateko erantzukizunez eta erakunde zentzuz jokatu dute, kontuan hartuta, erakunde ordezkaritza gisa egiten dituzten jardueretan, Foru Gobernuan dagoen ala dauden indar politikoa edo indar politikoak bozkatu dituzten herritarrak ordezkatzeaz gain, Gipuzkoako herritar guztiak ordezkatzen dituztela.

2.- Zuzentasuna

Funtzio publikoak betetzeko orduan, foru kargu publikoek jokabide etiko akatsgabea izango dute beti, bai edozein funtzio publiko betetzeko orduan, bai beren irudi publikoan eragina izan dezaketen bizitza pribatuko alderdietan ere. Halaber, egindako proposamenen arabera izan beharko da kargu publikoen jarduera, eta Erabaki honetan jasotako Balore eta Printzipioak, edota Jokabide Kodea eta Jardunbide Egokiak mantentzeko orduan eragin negatiboa izan dezakeen edozein barne ala kanpo presio alde batera utziko dute.

3.- Eredugarritasuna

Gipuzkoako herritarrentzat, foru kargu publikoen jardunbidea da erakundearen irudiaren isla. Ondorioz, foru kargu publikoen jokabidea publiko zein pribatua eredugarria izan beharko da beti. Eredugarritasun faltagatik Foru Aldundiaren erakunde irudia erasaten bada, edo Foru Aldundiaren ospe publikoa edo kapital soziala hondatzen bada, Jokabide Kodeak eta Jardunbide Egokiek (edo Gobernantza Egokiak) xedatutako moduan zuzendu beharko da gabezia hori.

4.- Zintzotasuna eta eskuzabaltasuna

Foru kargu publikoak betetzen dituzten pertsonak, beren jarduera publikoak egitean, interes orokorren, funtzio publikoak betetzearen eta herritarren zerbitzura dagoen sektore publikoko berezko eginbeharren arabera objektibotasunez jokatu beharko dute. Objektibotasun hori bereziki garrantzitsua izango da erabakiak hartzeko edo erabaketan parte hartzeko orduan, baldin eta erabaki horien arabera izendapenak zein kontratazio publikoak egin eta diru laguntzak ematen badira, edota botere publikoek erabaki jakin batzuk hartzeko orduan inpartzialtasuna babesteko printzipio zein arauak betetzea zalantzan jartzen bada.

5.- Objektibotasuna

Foru kargu publikoak betetzen dituzten pertsonak, beren jarduera publikoak egitean, interes orokorren, funtzio publikoak betetzearen eta herritarren zerbitzura dagoen sektore publikoko berezko eginbeharren arabera objektibotasunez jokatu beharko dute. Objektibotasun hori bereziki garrantzitsua izango da erabakiak hartzeko edo erabaketan parte hartzeko orduan, baldin eta erabaki horien arabera izendapenak zein kontratazio publikoak egin eta diru laguntzak ematen badira, edota botere publikoek erabaki jakin batzuk hartzeko orduan inpartzialtasuna babesteko printzipio zein arauak betetzea zalantzan jartzen bada.

6.- Profesionaltasuna

Foru kargu publikoek, esleitu zaien esparruan, profesionaltasun handiz beteko dituzte beren funtzioak. Horretarako; hau da, profesionalizazio hori bermatzeko, karguak izendatzeko prozesuetan, aldeztu behar bezala egiaztatuko da kargu horiek beteko dituzten pertsonak dagozkion ardurak betetzeko eskatzen diren eskumen profesionalak dituztela. Halaber, foru kargu publikoek, Foru Aldundiak Goi Zuzendaritza Publikorako diseinatutako prestakuntza programen bidez garatuko dituzte beren eskumen profesionalak, era horretan, zuzendaritza esparruan beren profil profesionala hobetzeko eta beren funtzio zein eginbeharra ahalik eta modu egokienean egiteko.

7.- Eraginkortasuna

Foru kargu publikoek, baliabideak kudeatzeko eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa

egiteko orduan, eraginkortasuna izango dute xede, eta ondasun edota baliabide publikoak erabiltzeko orduan, ez dituzte horiek inola ere xahutuko, eta horiek ahalik eta gehien optimizatuko dituzte. Etengabeko berrikuntza edo hobekuntza prozesuen bidez sustatuko da eraginkortasunaren xedea, eta prozesu horietan, politika publikoen ebaluazioa izango da funtsezko oinarrietako bat. Arreta berezia emango zaio Foru Aldundiko finantza iraunkortasuna bermatzeari, eta etorkizuneko gobernuen zein etorkizuneko belaunaldien jarduera ez hipotekatzeari.

8.- Bizikidetzeta eta errespetua

Foru kargu publikoek, beren funtzioak betetzean eta beren jokabide pertsonalaren bidez, bizikidetzeta, solidaritatea eta tolerantzia oinarri dituen gizarte indartuko dute, betiere pertsonen arteko errespetua, aniztasuna eta solidaritatea bultzatuz. Horrez gain, beti pertsona orok merezi duen dagokion adeitasunez, zuzentasunez, errespetuz eta duintasunez tratatuko dituzte bai herritarrak, bai Administrazio Publiko zerbitzuetako langileak, zuzendariak eta gainerako kargu publikoak. Beraz, ez dute mespretxuzko hitzik erabiliko edota edonolako bereizkeria (genero, ideologia, sexu orientazio, arraza, ezintasun edo bestelako arrazoiengatiko bereizkeria) sortzen duten jarrerarik edukiko.

3

ERAKUNDEAREN ZUZENTASUNARI LOTUTAKO JOKABIDE ARAUAK

3.1

Ordezkaritza

a) Erakunde ordezkariak foru kargu publikoaren ardura da, eta horren arabera, Foru Aldundiaren irudi eta ospea babestu behar du beti, eta ezin da inola ere funtzio hori betetzen dituzten pertsonen jarduera subjektiboagatik zalantzan jarri.

b) Erakunde ordezkariak esan nahi du foru kargu publikoak, funtzio horiek betetzean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko herritar guztiak ordezkatzeko dituela, ez kasuan kasu gobernuan dagoen ala dauden indar politikoaren ala politikoen alde bozkatu zuten pertsonak soilik.

c) Foru kargu publikoek erakunde osoa ordezkatzeko dute, eta beharrezko duintasun eta begirunearekin beteko dute funtzio hori, era horretan, erakundearen irudia ona izan dadin herritarren aurrean, eta ordezkari hori egiten duen pertsonaren ekintza edo ez-egiteek, jarrerak edo jokabideek ezingo dute erakunde horren irudia kaltetu.

d) Ordezkaritza funtzioak betetzeko orduan, foru kargu publikoek ardura eta erakunde zentzu osoz jokatu dute, eta bereziki kontuz ibiliko dira boluntarioki beren gain hartu duten kargu publikoaren duintasunaren aurka doazen hitzezko edo egitezko adierazpenik ez egiteko, eta ondorioz, erakundeari kalte hautemangarri edo ukiezinik ez sortzeko.

3.2

Zuzentasuna

a) Foru kargu publikoek, beren funtzio publikoak betetzeko orduan, jokabide etiko egokia izango

dute, hain zuzen ere Kode honetan xedatutako balore eta jokabide arauekin bat datorrena.

b) Halaber, foru administrazioari edo haren sektore publikoko entitateei zuzenean ala zeharka eragin diezaioketen bizitza pribatuko alderdiak ere bereziki zainduko dituzte. Horretarako, esparru pribatuan ez dituzte herritarrek foru erakundearengan duten konfiantza kaltetu edo zalantzan jarri dezaketen jarduerarik egingo edo horrelako jokabiderik edukiko.

c) Halaber, proposatutakoaren eta erabakitakoaren artean koherentzia mantenduko du bere jardueran, eta edonola ere, erabakiak hartzeko prozesua baldintzatu edo bertan eragin negatiboa izan dezakeen edozein kanpo presio saihestuko dute.

d) Beren funtzioak erabat betetzen dituztela bermatzeko, foru kargu publikoek beren erabaki eta ebazpenak justifikatuko dituzte, baita beren proposamen eta lehentasun politikak eta prozesu horiek bermatzen dituzten elementu objektiboetan eta txosten tekniko adituetan ere.

e) Bereziki, beren erabaki publikoetan eragina izan dezaketen kanpo interferentziak saihestuko dituzte, baita beren funtzioak betetzean kargu publiko gisa duten zuzentasuna zalantzan jarri ditzaketenak ere. Zehazki, pertsona edo entitate jakin batzuen aldeko faboritismo susmoak piztu ditzaketen jarduerak saihestuko dituzte.

f) Halaber, betetzen duten kargua dela eta, edozein pertsona edo entitatek zuzenean ala zeharka proposatzen dizkien edozein abantaila zuzenean ukatu edo saihestuko dute.

3.3 Eredugarritasuna

a) Foru kargu publikoek uneoro kontuan eduki behar dute erakunde baten ordezkari direla, eta beraiek ematen duten irudia dela herritarrek erakundearen inguruan jasotzen duten isla.

b) Beraz, foru kargu publikoen jokabide publiko zein pribatua eredugarria izango da beti, eta eredugarritasun hori jarduera eta ekintza zehatzetan islatu beharko da.

c) Foru kargu publikoek lidergo etikoa eduki behar dute beren erakundeetan.

d) Horretarako, beren erakundeetan giro etikoa sustatuko dute eta esparru horretan lan egiten duten pertsonentzako eredu izango dira. Beraz, ez dituzte erakundearen irudia kaltetu dezaketen jarduera edo jokabiderik izango.

e) Edonola ere, ahalegina egingo dute, beren jarduera publiko edo pribatuen bidez, ordezkatzeko erakundearen zilegitasuna indartzea eta aldi berean, erakundeak kalterik ez izatea, kalte horiengatik sor daitezkeen ardurak bere gain hartuz.

f) Foru kargu publikoek, erakundearen irudia eta eredugarritasuna babesteko, foru administrazioak edo haren entitateak beren kargua dela eta eskuragarri jartzen dizkien ondasun eta zerbitzuak modu egokian erabiliko dituzte. Halaber, beren funtzioak behar bezala betetzea oztopatu eta irudi okerra eman dezaketen jokabideak saihestuko dituzte.

- g) Jaun edo anderea izango da Foru kargu publikoen tratamendu ofiziala.
- h) Foru kargu publiko bat arlo publikoko bahiz pribatutko kausa baten instrukzio fasean sartzen bada, hori berme organoari jakinaraziko zaio, horrek, kasua aztertu ondoren, dagozkion neurriak proposa diezazkion organo eskudunari.
- i) Foru kargu publikoek elkarrekin eta bestelako entitateetan kargu organikoak edo gerentzia karguak bete ahal izango dituzte, baldin eta funtzio horiek betetzean interes gatazkarik sortzen ez bada edo interes gatazkarik sortzen ez dela badirudi. Horrelako funtzio edo ardurarik betetz gero, hori berme organoari jakinarazi beharko zaio lehenbailehen, era horretan, azken horrek dagozkion neurriak har ditzan.
- j) Foru kargu publikoek komunikabideetan eta sare sozialetan parte hartzen badute, parte hartze hori beren gain hartutako erakunde arduren arabera eta proportzionatua izan beharko da, eta gobernu politikaren arabera izango da baita ere. Edozein desadostasun larrikeria badago, hori barne esparruan tratatu beharko da, era horretan, gobernuaren batasuna eta Foru Aldundiaren irudia babesteko, betiere kargu publikoak daukan adierazpen eta informazio askatasuna eragotzi gabe. Foru kargu publikoak askatasun horiek erabiltzen baditu, konfiantza hautsi duela onartu beharko du, eta erakunde koherentziagatik zein koherentzia pertsonalagatik, dimisioa aurkeztuko du. Ildo horretan zalantzarik badago, hori berme organoari aurkeztuko zaio, eta horrek dagozkion gomendioa emango du.
- k) Foru kargu publikoek ez dute erakunde kreditu txartelik izango. Kargua dela eta egindako edozein gastu alde aurretik ordainduko foru kargu publikoak, eta aurrerago, funtzioak betetzen dituen erakundeak, gastua ikuskatu ondoren, hori ordainduko dio foru kargu publikoari. Hala ere, erakunde joan-etorrietan edo antzeko izaerako ekintzetan aurreko arauaren salbuespenak egin ahal izango dira, behar bezala justifikatuta.
- l) Foru kargu publikoek egiten dituzten erakunde bidai eta bazkarien erregistroa eramango da non horien helburua eta kostua jasoko diren.
- m) Foru kargu publikoek auto ofizialak erabili ahal izango dituzte erakunde joan-etorriak egiteko soilik, alde aurretik ibilgailu zerbitzura eskera egin ondoren eta Foru Aldundiak zehaztutako arauak betez.

3.4

Zintzotasuna eta eskuzabaltasuna

- a) Foru kargu publikoek interes publikoko helburua betetzeko eta Gipuzkoako herritarren interes orokorren alde soilik egingo du lan.
- b) Interes publikoen eta pribatuen arteko gatazkarik badago, edo gatazka susmorik badago, kargu publikoak dagozkion autoritateari edo erakundeari jakinarazi beharko dio lehenbailehen, edo bestela, Etika Batzordeari, hala badagokio. Halaber, gai horri buruzko kontsulta berme organoari ere helarazi ahal izango dio.
- c) Edonola ere, aurreko atalean zehaztutako baldintzetako bat ematen bada, ez du parte

hartuko dagokion erabakia hartzeko prozesuan, ez zuzenean, ez zeharka.

d) Interes gatazka sortzen da foru kargu publikoak hartzen dituen erabaketan berezko interes pribatuak baditu, edota izaera publikokoak, zuzeneko senideenak, izatezko bikotekidearenak edo hirugarrenekin partekatutako interesak, baita pertsona edo kolektibo horiek hartu-emanak izan dituzten enpresa edo entitateen interesak ere.

e) Interes gatazka dagoela dirudi foru kargu publikoaren ustez, bere eskumeneko jarduera, esku hartze edo erabakiek ez badute eraginik bere interes pertsonaletan, familia interesetan edo berari lotutako hirugarren pertsonen interesetan, ezta pertsona horiek nolabaiteko harremana izandako enpresa edo entitateen interesetan; baina ikuspegi objektibotik begiratuta, jarduera, esku hartze edo erabaki horrek erakundearen irudia zuzenean eta nabarmen kaltetzen badu herritarren aurrean.

f) Foru kargu publikoek ez dute inolako opari, gonbidapen, bidaia, otordu edo ordainketa ekonomikorik onartuko bere funtzioak betetzea hitzaldiak emateagatik edo karguari lotutako jarduerak egiteagatik, baldin eta horiek bere zintzotasuna zalantzan jartzen badute, edota parte hartzeko prozesua baldintzatzen dutela pentsa badaiteke. Kontsulta edo kexen bidez, berme organoak kasuan kasu onargarriak eta onartezinak diren opari, konpentsazio eta onuren zerrenda ezarriko du. Salbuespen horiek Kode honetako Aplikazio Gidan xedatuko dira.

g) Edonola ere, Foru Aldundiaren irudia babesteko, kontratatu diren edo ardura publikoen berariazko esparruan objektiboki kontratu daitezkeen enpresa edo partikularrek egindako opari, gonbidapen edo hitzaldi eskaintzei uko egingo diete foru karguek. Opari edo gonbidapena entregatzen bada, hori foru administrazioaren edo sektore publikoko entitatearen esku utziko da berehala, era horretan, dagokion tratamendua emateko.

h) Halaber, foru kargu publikoek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, bere inguruko familia esparruan edo izatezko bikoteak f) eta g) ataletan xedatutako opari eta gonbidapenik jasotzen ez dutela bermatzeko.

i) Kargu publikoak ildo horretan inolako zalantzarik badu, hori berme organoari helarazi beharko dio horretarako zehaztutako bideak erabiliz, eta beharrezkoa bada, bere eskaera isilpekoa izatea eska dezake.

3.5 Objetividad

a) Foru kargu publikoek objektibotasunez eta interes orokorren zein herritarren interesen alde jardun beharko dute beren jarduera publikoetan.

b) Horretarako, beren funtzioetatik kanpo utzi beharko dituzte edozein jarduera susmagarri, baldin eta horien bidez modu ez-objektiboan eta argumenturik gabe, entitate pribatu edo publiko edo pertsona zehatzei zuzeneko ala zeharkako onura sor diezaieketela badirudi.

c) Bereziki, jarduera objektiboa nagusi izango da izendapenetan, kontratazio publikoan,

diru laguntzak ematean edo kargu publikoek beren funtzioak inpartzialtasunez betetzeko lege xedapena betetzean.

d) Kargu publikoek ezingo dute beren erakunde kargua erabili entitate publiko edo pribatueta-tik edozein abantaila lortu edo lortzeko ahalegina egiteko, abantaila oso txikia bada ere.

e) Foru kargu publikoen ebazpen, jarduera eta erabakiak behar bezala oinarrituta egon beharko dira, beharrezkoa denean, horretarako txostenak, azterlanak, memoriak, oharra-k, proiektuak edo irizpenak erabiliz, interes publikoa eta erakundearen beraren papera erabat bermatzeko. Horretarako erakundeko barne baliabideak erabiliko dituzte, eta beharrezkoa bada, kanpo aholkularitza erabiliko dute, administrazio kontratazioaren esparruan inda-rraan dagoen araudiari jarraiki.

3.6

Profesionaltasuna

a) Diputatu mailaren azpitik dauden foru kargu publikoek, izendapenaren aurretik, behar bezala egiaztatu beharko dute esleitutako funtzioak betetzeko beharrezko gutxieneko gaitasun profesionalak dituztela.

b) Kode hau onartu ondoren, zuzendari mailako foru kargu publikoek eta maila baliokidetakoe-k beren funtzioak betetzeko gutxieneko gaitasun profesionalak dituztela egiaztatu beharko dute izendapena jaso baino lehen. Foru Aldundiak, Erabaki bidez zehaztuko du zuzendaritza gaitasunak egiaztatzeko sistema eta gaitasun horiek ebaluatzeko organo eskuduna.

c) Halaber, ebaluazioa egin ondoren edo hierarkia maila gorenak emandako erabakiaren bidez, foru administrazioak xedatutako gutxieneko gaitasun maila betetzen ez dela on-dorioztatzen bada, foru kargu publikoek gaitasun horietan prestakuntza jaso eta horiek garatzeko obligazio eta konpromisoa hartuko dute beren gain.

d) Hurrengo agintalditik aurrera, zuzendari mailako edo maila baliokideko foru kargu pu-blikoek kudeaketa akordioa sinatuko dute beren departamentuekin, eta bertan, lortu beha-rrereko helburuez gain, adierazleak zehaztuko dira eta beren errendimendua ebaluatuko da aldian behin. Hala ere, agintaldi honetan, hau da, 2015-2019 bitarte, foru administrazioaren esparru jakin batzuetan edo haren sektore publikoko entitateetan kudeaketa akordioaren programa pilotua garatu ahal izango da.

e) Foru kargu publikoak foru administrazioari edo haren sektore publikoko entitateei aur-keztutako curriculum profesionaleko datuak benetakoak eta egiaztagarriak izan beharko dira. Jokabide horretan ez betetzerik egiten bada, erakundearen edo entitatearen irudia nabarmen kaltetzen dela joko da, kontuan hartu gabe pertsonaren ospea eta sinesgarritasuna ere galtzen dela.

3.7

Eragimena

a) Foru kargu publikoek eragimenez kudeatuko dituzte baliabide publikoak, horiek inola

ere xahutu gabe, eta eragimenez horiek optimizatuz.

b) Foru kargu publikoei atxikitako baliabide publikoen erabilera beren ardura publikoak betetzeari lotuta egongo da. Objektiboki salbuetsi daitezkeen premia kasuetan izan ezik, eskuragarri jartzen zaizkien baliabide publikoak ez dira erabiliko interes publikoekin zerikusirik ez duten premia pribatuak, pertsonalak edo profesionalak ala familia premiak asetzeko.

c) Foru kargu publikoek etengabeko hobekuntza prozesuak sustatuko dituzte baliabideak aurrezteko, baina zerbitzu publikoen prestazioari kalterik egin gabe, noski. Horretarako, helburu hori lortzeko jokabide egokiak izango dituzte.

d) Foru kargu publikoek, beren ardura esparruan esleitutako politika publikoak diseinatu, ebatzi eta kudeatzeko orduan, Foru Aldundiaren finantza iraunkortasuna babestu eta bermatuko dute.

3.8

Bizikidetzaren eta errespetua

a) Besteekiko errespetua da bizikidetzaren oinarria.

b) Foru kargu publikoek, beren jokabide pertsonalaren bidez, bizikidetzaren, elkartasuna eta tolerantzia oinarri dituen gizartea indartuko dute, pertsonen arteko errespetua, aniztasuna eta solidaritatea bultzatuz.

c) Halaber, foru kargu publikoek beste kargu publikoekin, oposizioko kideekin, langile publikoekin edo herritarrekin duten erakunde harremanetan eta harreman pertsonaletan errespetua, begirunea, zuzentasuna, enpatia eta baretasuna izango dira nagusi, beste pertsonarentzako tratua ezegokia saihestuz eta irainik erabili gabe.

d) Kargu publikoek pertsonekin hartu-emanak edukitzeko orduan, lengoia egokia erabiliko dute eta neurritasuna zein izaera adeitsua izango dituzte, hori baita herritarrekin hartu-emanak edukitzeko modu egokia.

e) Berehalakotasunari eta jarraitutasunari begira, langile publikoekin dituzten hartu-emanetan c) atalean xedatutakoa bete beharko dute, zirikatzeko edo jazarpen egoera argiak ekidinez. Horrelako egoerarik sortzen bada, berme organoari horren berri emango zaio berehala. Berme organoaren arabera, kexa edo salaketa funtzioa bada, informazio espedienteak irekitzeko aukera emango da, beharrezkoa bada, dagozkion ardurengatik zigorrak ezartzeko.

f) Halaber, foru kargu publikoek ez dute mespretxuzko hitzik erabiliko edota edonolako bereizkeria (genero, ideologia, sexu orientazio, arraza, ezintasun edo bestelako arrazoiengatik bereizkeria) sortzen duten jarrerarik edukiko. Foru kargu publikoek, hitzez edo hitzik gabe, egiteen ala ez-egiteen bidez, generoa edo sexu orientazioa dela eta, jokabide iraingarriak edo baztertzailak ekidindo dituzte.

g) Herritarrek edo entitateek egindako proposamenak zein iradokizunak modu aktiboan entzungo dituzte foru kargu publikoek eta horiek onartzen ala ez onartzen dituzten azaldu edo justifikatu beharko dute, erakundeek herritarren aurrean duten sinesgarritasuna babesteko.

4

JARDUNBIDE EGOKIEN PRINTZIBIOAK

4.1

Jardunbide Egokien Printzipiok

Jardunbide Egokien Printzipiok (edo Gobernantza Onarenak) irizpide multzo bat dira, foru kargu publikoek beren funtzioak betetzen dituzten erakundearen izaera berezia dela eta, orientabide gisa erabili behar direnak kudeaketaren eta foru politika publikoak abian jartzeko esparruan, era horretan, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzu publikoen kalitatea eta eragimena hobetzeko erakunde errendimendua lortzeko.

4.2

Jardunbide egokien printzipioen zerrenda

Gobernantza Egokiaren printzipio publikoak, hau da, kargu publikoek kudeaketa publikoaren eta foru politika publikoak martxan jartzeko esparruan bete beharrekoak, honako hauek dira:

1.- Lidergo partekatu eta eraldatzailea

Foru kargu publikoek, Gobernantza Onerako politikaren esparruan, Gipuzkoako gizarteak eskatzen duen lidergo partekatu eta eraldatzailea gauzatuko dute. Beraz, esparru publikoaren eta pribatuaren artean eta erakundeen artean beharrezkoak diren lankidetzak zein sinergia guztiak sustatu eta bultzatuko dituzte, bereziki udalerriekin eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko gainerako tokiko entitateekin. Halaber, politika publikoen eta aipatutako entitateen antolakuntzak modu iraunkorrean egokitu eta eraldatzea sustatuko dute, beren helburu eta egiturak gizarteak eskatzen dituen aldaketetara egokitzeko.

2.- Gardentasuna

Foru kargu publikoen jardueraren ildo nagusia gardentasuna izango da zentzu zabalenean ulertuta, herritarren funtsezko eskubideak errespetatuta eta indarrean dagoen legeria betez. Gardentasunaren funtsezko helburua da herritarrei eskatzen duten informazioa edota informazio publiko garrantzitsua ematea, indarrean dagoen araudiak xedatutakoari jarraituz, era horretan, herritarrek jakin dezaten foru erakundeak nola antolatzen diren, nola betetzen dituzten beren funtzioak, nola erabiltzen dituzten baliabideak. Hala, herritarrekin konfiantzan oinarritutako harremana ezarriko da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren erakunde zilegitasuna indartuko da, eta kontuak ematea ere erraztuko da.

3.- Datuen Eskuragarritasuna

Gardentasun politika eta publizitate aktiboa behar bezala garatuz, foru kargu publikoek datuak benetan eskuragarri jarriko dituzte (Open Data), informazioa bihurtu dadin jakintza era egoki batean, eta hala, Gipuzkoako herritarren bizi kalitatea hobetu eta Gipuzkoako

Lurralde Historikoko hazkunde ekonomikoa sustatzeko.

4.- Kudeaketa eta berrikuntza eredu berria

Foru kargu publikoek Antolakuntza Eredu Berriaren aldeko apustua egingo dute, zehar-kakotasuna eta desburokratizazioa sustatuz, erabakiak hartzeko prozesuak hobetzeko, kudeaketa erraztu eta hazkunde ekonomikoa zein inbertsioak sustatzeko. Horrez gain, Administrazio elektronikoa benetan garatzea, eta prozedurak zein izapideak errazteko informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea da helburua. Halaber, herritarren partaidetza sustatuko dute erabakiak hartzeko prozesuetan. Azkenik, berrikuntza modu sistematikoan sustatuko dute, bai barne edo gobernu esparruan (bertan aktore nagusi izan behar baitira), bai kanpo esparruan ere, enpresa esparruan zein zerbitzuen esparruan berrikuntza sustatuko baitute.

5.- Euskararen sustapena eta erabilera

Foru kargu politikoek modu aktiboan sustatuko dute euskararen erabilera Foru Aldundian, bai barne antolaketa-erako politika zein administrazio lanak garatzeko, bai bestelako botere publikoekin edo gobernu mailekin dituen harremanetan (baldin eta euskara hizkuntza ofizial gisa badute edota euskararen erabilera aitortzen badute), baita herritarrekin eta herritar elkarteekin eduki beharreko hartu-emanetan ere. Horrez gain, beren funtzioak betetzeko orduan, euskararen eta gazteleraren ofizialtasun esparrua erabat errespetatuko dute, eta beraz, ez dute hizkuntzagatiko bereizkeriarik sortzen duten jarrerarik izango.

6.- Kohesio ekonomiko-soziala eta lurralde oreka

Foru kargu publikoek, beren funtzioak betetzeko orduan, kohesio sozial zein ekonomikoa sustatuko dute, baita Gipuzkoako gizartearen lurralde oreka ere. Esparru ekonomikoari dagokionez, industria eta ekintzailtza sarea indartzeko ahalegina egingo dute, baita lehiakortasuna hobetzeko azpiegiturak garatu, nazioartekotzeko merkatu berriak irekitzeko ere. Halaber, gazte kualifikatuentzako eta denbora luzea langabezian daramaten pertsonentzako lanpostuak sustatzeko ahalegina ere egingo dute. Esparru sozialari dagokionez, beren funtzioak betetzean, heinean-heinean gizarte ezberdintasunak ezabatu eta gizarteratzea bermatuko dute, gizarte prestazio sistemaren iraunkortasuna baitute xede. Lurralde orekari dagokionez, lurraldearen azpiegiturak bultzatuko dituzte; horretarako, tokiko entitateekin sarean lan egingo dute, eta Gipuzkoako udalerrietan gobernantza indartuko dute, era horretan, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzu publikoak kalitate eta eragimen handikoak izan daitezen.

7.- Harreman kapitalean oinarritutako gobernu eta herritarren entzute aktiboa

Gobernantza Onerako politika harreman kapitalean oinarritutako gobernurako funtsezko ildo dela kontuan hartuta, foru kargu publikoek bi norabideko entzute aktiboa indartuko dute, baita gipuzkoarrekin duten harremana ere, baterako sorkuntzan eta esparru publikoaren eta pribatuaren arteko sinergietan oinarritutako ekintza publikoan, partaidetza eta konpromiso herritarra indartuz. Horretarako, foru politika publikoak diseinatu, egikaritu, onartu edo ebaluatzeko esparruan, Gipuzkoako herritarrekin, elkarteekin eta enprekin komunikazio bideak etengabe zein modu aktiboa sustatuko dituzte, horretarako lankidetzak gardentasun formulak erabiliz, erakunde egitura edota sareak eta partaidetza prozedurak sortuz, betiere kontuan hartuta helburu nagusia interes orokorrak eta kontu publikoen finantza osasuna bermatzea.

8.- Kontuak ematea

Foru kargu publikoek, beren funtzioak betetzeko orduan, ardura osoz jokatuko dute beti. Horrek esan nahi du esleitutako funtzioei dedikazio berezia emango dietela, erabaki bakoitzak sorrarazten dituen interes eta egoerak baloratuz, erabaki horiek behar bezala arrazoituz, eta edonola ere, funtzio horiek betetzeagatik sortzen diren ondorioak eta beren jokabideen ondorioak beren gain hartuz. Foru karguek aldi behin kontuak eman beharko dituzte herritarren aurrean. Jarduera publikoan aritzeagatik kontuak ematea sistema demokratikoaren funtsetako bat da, dagozkion instantzien aurrean egingo da, eta herritarrek beren erakundeengan eta bertan ardura publikoak dituzten pertsonengan duten konfiantza zein sinesgarritasuna indartzeko modu bakarra da.

5

JARDUNBIDE EGOKIEN JARDUERA ARAUAK

5.1

Lidergo partekatua eta eraldatzailea

a) Gobernantza Onerako politikaren esparruan, Gipuzkoako gizarteak eskatzen duen lidergo partekatua gauzatuko dute foru kargu politikoek, beren autoritate formalagatik beren gain hartu beharreko ardura publikoak eragotzi gabe.

b) Enpatian oinarritutako lidergoa garatu eta gauzatuko dute, eta uste sendoak, berriz, argumentuen, eredugarritasunaren zein politikaren eta kudeaketaren arteko lerrokadura zuzenaren bidez.

c) Halaber, politika publikoak diseinatu eta zehazteko orduan, esparru publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren sustatu eta bultzatuko dute, baina bereziki, politika horien kudeaketan.

d) Eraldaketaren, moldagarritasunaren eta berrikuntzaren alde egiten duen lidergoa bultzatuko dute, aldi berean, maila ertaineko maila eta arduretara, kateko lidergoak sustatuz.

e) Proiektu partekatuetan lantaldeak sortu eta kohesionatzea sustatuko dute, proiektu horien zuzendaritzaz eta orientabideaz arduratuz, eta programa horietan pertsona bakoitzaren errendimendua ebaluatuz.

f) Maila anitzeko gobernuaren esparruan, erakunde arteko lankidetzaren leiala garatuko dute, bereziki Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriekin eta gainerako tokiko erakundeekin, baita Eusko Jaurlaritzarekin eta Nafarroako Foru Erkidegoarekin ere.

5.2

Gardentasuna

a) Foru kargu publikoek, beren funtzioak betetzeko orduan, gardentasunaren printzipioa izango dute nagusi, unean-unean legezketasuna eta oinarritzko eskubideak betetz, eta zehazki, datu pertsonalen babeserako eskubidea betetz. Zentzu honetan, kargu gorenena

beraien agendak publikoak egingo dituzte, izaten dituzten bileren inguruko eta joaten diren ekitaldien informazioarekin.

b) Foru kargu publikoaren ardurapeko departamentuko, zuzendaritza unitateko edo entitateko barne kudeaketan izango du eragina gardentasun printzipioak, kudeaketa publikoa eta antolakuntza kultura hobetuz.

c) Foru kargu publikoen jokabide gardenaren xedea izango da herritarrek erakundeengan duten konfiantza hobetzea, herritarrei erakundeek kontrol demokratikoa egiteko aukera ematea, eta kontuak ematen direla bermatzea.

d) Foru kargu publikoek gardentasun eragingarria bultzatuko dute publizitate aktiboaren esparruan, eta ahalegina egingo dute lege eskakizunak eta foru araudia dela eta eratorritakoak heinean-heinean gainditzeko.

e) Halaber, eskuragarri dituzten neurri guztiak abian jarriko dituzte beren ardurapeko esparru guztietan informazio publikoa eskuragarri edukitzeko eskubidea bete dadin. Ez-onartzeen zergatiak eta muga materialak interpretatuko dituzte muga irizpideekin, herritarrek ez-onartzeen zergatiak ezagutzeko eskubidea beteta ikus dezaten.

f) Kudeaketaren ikuspegitik, informazio publikoa eskuragarri jartzeko egiten diren eskaeren aurrean, erantzun azkar eta eragingarriak bermatuko dituzte.

g) Gardentasuna eta informazio publikoa eskuragarri jartzea dela eta sortzen diren betebeharrak, eta gardentasunaren gainerako dimentsioak betetzeko, bereziki zainduko da euskararen erabilera.

5.3

Datuen Eskuragarritasuna

a) Foru kargu publikoek, beren funtzioak betetzeko orduan, datuen eskuragarritasuna sustatuko dute, datu pertsonalen babesa eta pertsonen oinarrizko eskubideak betez.

b) Halaber, informazio publikoaren berrerabiltzea bultzatuko dute, hazkunde ekonomikoa eta enplegua hobetzeko.

c) Foru kargu publikoek urteko eta agintaldiko konpromisoak hartuko dituzte aurreko bi ataletan xedatutako erronkak lortzeko, bai datuen eskuragarritasunari bai datuen berrerabiltzeari dagokionez.

d) Horrez gain, konpromiso horien ebaluazioa ere sustatuko dute.

5.4

Kudeaketa eta berrikuntza publikoko eredu berria

a) Foru kargu publikoek Antolakuntza Eredu Berria bultzatuko dute, zeharkakotasuna eta desburokratizazioaren aldeko apustua egin, eta erabakiak hartzeko prozesua hobetu eta

eraginkorrago bihurtzeko.

b) Halaber, prozeduren zein izapideen sinplifikazioa sustatuko dute, hazkunde ekonomikoa bultzatu eta zama burokratikoa ezabatzeko.

c) Horretarako, beren eguneroko funtzioak betetzeko orduan, Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia erabiliko dituzte bereziki, baita administrazio elektronikoa ere.

d) Berrikuntza modu sistematikoan sustatuko dute, bai barne edo gobernu esparruan (bertan aktore nagusi izan behar baitira), bai kanpo esparruan ere, enpresa esparruan zein zerbitzuen esparruan berrikuntza sustatuko baitute.

e) Bereziki, beren ardurapeko departamentuan, zuzendaritza unitatean edo entitatean berrikuntza kultura sustatuko dute, sormena bultzatuz eta kudeaketa publikoa egiteko modu berriak modu arduratsuan esperimentatuz, hala, hobekuntzak bultzatzeko, edo gutxienez ikaskuntza kolektiboa sustatzen duten formulekin saiakerak egiteko.

f) Horrez gain, beren erakundeen etengabeko eraldaketa eta moldagarritasun kultura jarraitua garatuko dute, unean-unean sortzen diren metodo eta erronka berriei aurre egiteko.

5.5

Euskararen sustapena eta erabilera

a) Foru kargu politikoek modu aktiboan sustatuko dute euskararen erabilera Foru Aldundian, bai bestelako botere publikoekin edo gobernu mailekin dituen harremanetan (baldin eta euskara hizkuntza ofizial gisa badute edota euskararen erabilera aitortzen badute), bai herritarrekin eta herritar elkarteekin eduki beharreko hartu-emanetan ere.

b) Beren jarduera profesionalean, gehienbat euskara erabiliko dute, bai ahozko jardueretan bai idatzizkoetan, euskara ezagutza nahikorik ez duten pertsonekin hartu-emanak dituztenean izan ezik.

c) Edonola ere, aipatu berri dena eragotzi gabe, euskararen eta gazteleraren ofizialtasun esparrua erabat errespetatuz jardungo dute.

5.6

Kohesio ekonomiko-soziala eta lurralde oreka

a) Foru kargu publikoek, beren funtzioak betetzeko orduan, kohesio sozial zein ekonomikoa sustatuko dute, baita Gipuzkoako gizartearen lurralde oreka ere.

b) Esparru ekonomikoari dagokionez, industria eta ekintzaitza sarea indartzeko ahalegina egingo dute, baita lehiakortasuna hobetzeko azpiegiturak garatu, nazioartekotzeko merkatu berriak irekitzeko ere. Halaber, gazte kualifikatuentzako eta denbora luzea langabezian daramaten pertsonentzako lanpostuak sustatzeko ahalegina ere egingo dute.

c) Gizarte esparruan, gizarte desorekak orekatu eta gizarte bazterketa saihestu zein

desagerrarazteko jarduerak jarriko dituzte abian, gizarte prestazioen iraunkortasuna bermatzeko.

d) Lurralde esparruan, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak hobetzeko asmoz, sareko lankidetzak sustatuko dute Eusko Jaurlaritzarekin, Nafarroako Foru Erkidegoarekin, beste Lurralde Historikoeekin, mugaz gaindiko entitateekin edo Eurohiriaren esparruarekin edota Gipuzkoako gainerako udalerriekin.

5.7

Harreman kapitalean oinarritutako gobernuak eta herritarren entzute aktiboa

a) Foru kargu publikoek, beren funtzioak betetzeko orduan, Gobernantza Onaren politikaren esparruan, modu aktiboan sustatuko dute harreman kapitalean oinarritutako gobernuak.

b) Halaber, foru politika publikoak bultzatu, diseinatu, egin eta ebaluatzeko orduan eta horien inguruan erabakiak hartzeko orduan, herritarren partaidetzarako bide eraginkorrak bultzatu eta horiek aktibo mantenduko dituzte, betiere interes orokorrak eta kontu publikoek finantza osasuna bermatuz.

c) Horrez gain, beren funtzioak betetzeko eta gizartearekin hartu-emanak edukitzeko orduan, informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera zentzuduna garatuko dute, baita sare sozialena ere.

d) Foru kargu publikoek Gipuzkoako herritarren presentzia aktiboa indartuko dute, baita horiekiko konexioa ere, baterako sorkuntza oinarritutako ekintza publikoaren barne, herritarren partaidetza eta konpromisoa indartuz.

e) Herritarrekin zein entitate publiko eta pribatuekin dituzten hartu-emanetan, kargu publikoek entzute aktiboa garatuko dute, pertsona edo entitate bakoitzak helarazten dizkien eskaerei arreta eman eta horiek izapidetzeko, kasuan kasu, eskaera horiek materialki onartzea ezinezkoa izatea eragotzi gabe.

f) Bereziki enpatia erakutsi beharko dute Gipuzkoako gizartearen premia gehien dituzten kolektiboekiko, horretarako, komunikazio tresna eraginkorrak eta eraikitzaileak garatuz; eta, hala, kolektibo horiei dagokion babesa emateko.

g) Indarrean dauden arauak horretarako xedatzen dituzten bide eta mekanismoen bidez garatuko da herritarren partaidetza, baita lankidetzak gardentasunerako tresnen eta beste-lako baliabideen bidez ere, herritarrei protagonismoa emateko, eta herritarrak zein herritar elkarteak foru politika publikoen sustapenean, diseinuan, egikaritzean edo ebaluazioan inplikatzeko, bereziki alorreko esparrukoetan.

5.8

Kontuak ematea

a) Foru kargu publikoek arduraz eta dedikazioz garatuko dituzte beren funtzioak, kudeaketa dela eta sortzen diren ardurak beren gain hartuz.

b) Herritarren partaidetza sustatzea eragotzi gabe, foru kargu publikoak dira beren ardurapeko esparru edo eremuko politika publikoen arrakasta edo porrotaren erantzule nagusiak.

c) Eguneroko kudeaketan, foru kargu publikoek Kudeaketarako Plan Estrategikoaren barne aldi baterako txertatutako helburu eta xedeen programazioaren bidez egingo dute lan, baita emaitzak ebaluatzeko adierazleak zehaztuz ere.

d) Kargu publikoek aldian behin eman beharko dituzte kontuak, eta kontu emate horien bidez, hartutako erabakiak zein erabilitako baliabideak justifikatu beharko dituzte, baita sor daitezkeen ez-egite edo desbideratzeak ere. Bide telematikoz edo agerraldi bidez eman ahal izango dira kontuak. Kontu horiek Batzar Nagusien eta komunikabideen aurrean emango dira, eta bereziki saio irekietan, herritarren eta elkarte zein entitateen aurrean.

e) Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen dituen gertakizun guztiak grabatuak izango dira eta, posible den guztietan, zuzenean emango dira, beraien jarraipena eta kontrola ahalbidetzeko.

f) Kontuak ematea baliabide elektronikoak eta Gardentasuna webgunearen bidez ere egin ahal izango da, jarduera bakoitzaren jarraipena egiteko aukera ematen duten tresnak ezarri.

g) Foru kargu publikoaren arduraz soilik zehaztutako helburuak justifikatu gabe edo modu larrian betetzen ez badira, horrek bere izendapena egin zuen autoritatearen esku utziko du bere kargua.

6

SUSTAPENA, PREBENTZIOA ETA BERME SISTEMA

6.1

Sustapen eta prebentzio neurriak

6.1.1

Baloreen, printzipioen eta jokabide zein jarduera arauen sustapena.
Zuzentasunaren Prebentziorako Neurriak

a) Foru Administrazioak urteko ekintza programa baten bidez emango ditu ezagutzera baloreak, printzipioak eta jokabide zein jarrera arauak. Programa horretan tailerrak, pres-takuntza programak zein barne eta kanpo komunikazio kanpainak zehaztuko dira, baita giro etikoa garatzen laguntzeko eta Kodean zehaztutakoaren aurkako jarrerak saihesteko bestelako neurriak ere.

b) Aurreko atalean aipatutako programaren helburu nagusia da foru kargu publikoek beren funtzioak eta eginbeharrak betetzean, kudeaketa publikoaren jardunbide egokiak eta azpiegitura etikoa hobetzea.

c) Foru kargu publikoek programa horretan zehaztutako jarduera guztietan parte hartu beharko dute derrigorrez, eta kasuan kasu zehaztutako konpromiso, helburu eta erronkak lortu beharko dituzte.

6.1.2

Bikaintasun eta kudeaketa etikorako pizgarriak

- a) Etika eta kudeaketa bikaintasunagatiko sariak ezarri ahal izango ditu foru administrazioak, bai dagozkion zuzendaritza unitateetan, bai Foru Aldundiari atxikitako sektore publikoan.
- b) Foru Aldundiaren Erabaki bidez, kasuan kasu, sari horiek arautzen dituzten oinarriak onartuko dira, baita sari horien bidez pertsona ala unitate bakoitzari ematen zaizkion ordain edo aitortpenak ere.
- c) Bikaintasun etikorako sariak bereziki azpimarratuko dute jokabide jarraitu bat gainditu izana edota jarduketara jakin baten bidez, Kode honetan araututako Jokabide Arauen gutxieneko estandarrak gainditu izana.
- d) Balorazio epean zehar zuzendaritza unitate ezberdinetan eta bertan lan egiten duten langileek abian jarritako berrikuntza edo hobekuntza proiektuak sarituko dituzte kudeaketa bikaintasunaren sariak.
- e) Foru administrazioetik kanpoko aditu batek ala aditu batzuek egingo dute jardunbide egokien ebaluazioa beti, eta etika bikaintasunari dagokionez, berme organoaren iritzia eduki ahal izango du(te).

6.2

Berme organoa

- 1.- Erakundearen Etika Batzordea izango da berme organoa.

7

KONTUAK EMATEA, EBALUAZIOA ETA GARDENTASUNA

7.1

Kontuak ematea

1.- Foru Aldundiak, kontuak emateko prozesuen barne eta horretarako oro har ezartzen diren epeetan, Kode honen aplikaziorako abian jarritako sustapen eta prebentzio neurriak azalduko ditu, eta Erakundearen Etika Batzordeak osatuko duten urteko txostenerako jarduera zehatzetarako birbidaliko du; hori guztia, kasuan kasu baliabide elektronikoen bidez egin daitekeen berehalako kontu ematea eragotzi gabe.

2.- Halaber, zuzentasunaren eta kudeaketaren jardunbide egokien esparruan abian jarri diren edo abian jarri nahi diren sari deialdien berri ere emango du, halakorik badago.

7.2

Ebaluazioa

1.- Foru Aldundiak erakundearen zuzentasun politika ebaluatzeko kanpo sistema bat

adostuko du, bereziki Kode honetan jasotako neurriak ebaluatzeko.

2.- Ebaluazio prozesu hori bi urtez behin egingo dute Foru Aldundiarekin zerikusirik ez duten kanpo entitateek. Entitate horiek kaudimen profesionala, inpartzialtasuna eta eskarmentua egiaztatuko beharko dituzte horrelako ebaluazio prozesuetan.

7.3 Gardentasuna

1.- Kode hau dela eta ematen den informazio guztia informazio publiko garrantzitsutzat joko da eta Foru Aldundiaren Gardentasunaren Atarian argitaratuko da.

2.- Erakundearen Etika Batzordeak egindako gaitzespen proposamenak eta kargutik kentzeko proposamenak publikoak izango dira, hain zuzen ere kasuan kasuko Foru Arauak xedatutako baldintzetan. Hala, gardentasunaren eta datuen babesaren inguruko legediak aurreikusitako mugen salbuespenak ezarri ahal izango ditu Foru Arau horrek.

3.- Datu pertsonaletan zuzeneko eragina duen gainerako informazioa publikoa izango da, baldin eta hori hedatzeko interes publikoa nagusi bada, betiere erasandako pertsonari aldeztu aurretik entzundakia eman ondoren.

4.- Isilpeko izaera duten kontsulta edo denuntziak ez dira inola ere publikoak izango.

5.- Kode honetan jasotako obligazioen ez-betetzeak Gardentasun Atarian argitaratuko dira, baina datu pertsonalei dagokienez, pertsonaren identifikazioa eta horrek betetzen duen kargua bakarrik zehaztuko dira.

7.4 Aplikazio gida

Erakundearen Etika Batzordeak urtero osatuko du Kode honen Aplikazio Gida eta hori Gobernu Batzarrari aurkeztuko dio onar dezan. Gida horretan Jokabide Arauen irismena zehaztuko da, epe horretan zehar egindako kontsultak eta onartutako ebazpenak oinarritzat hartuta. Gida hori publikoa izango da.

7.5 Kodeko betebeharrak eta konpromisoen denbora aplikazioa

1.- Kode honetan zehaztutako betebeharrak eta konpromisoak aplikagarriak izango dira foru karguaren izendapena egiten denetik, hori kargutik kentzen den momentura arte.

2.- Betebeharrak eta konpromiso horiek, “ex ante” egoerengatik sortzen diren interes gatazketan izan ezik, ez dira aplikagarriak izango kargu publikoak Foru Aldundiarekin aldeztu aurretik edukitako hartu-emanetan, ezta foru administrazioaren zerbitzura lan egin ondoren, eta erakunde horrekin edukitako harreman organikoa amaitu ondoren sortzen diren “ex post” jardueretan ere. Kasu horietan, interes gatazken esparruan indarrean dagoen foru legeria edo araudia aplikatuko da.

3.- Edonola ere, kargu publikoen eta kargu baliokidean izendapena proposatzen dutenek, aldez aurretik hautagaien zuzentasuna ebaluatzeaz arduratu beharko dira. Izendapenerako hautagaiak beren ibilbide profesionalari edo curriculumari buruz gezurrik esan badute, daturik ezkutatu badute edo akats larriak egin badituzte, Kode honetan xedatutakoa aplikatuko da.

4.- Kode honetan xedatutako baloreak eta jokabide arauak barneratzeko asmoz, kodea indarrean dagoen lehenengo urtean, Erakundearen Etika Batzordeak gaitzespen ebazpenak bakarrik eman ahal izango ditu, hau da, ezingo du inor kargu publikotik kentzeko proposamenik egin. Hala ere, norbait kargutik kentzea eskatzen duen egoera objektiborik sortzen bada, hori ebazpenean zehaztuko da eta foru kargu publikoaren esku utziko da karguan jarraitu edo dimisioa aurkezteko erabakia. Dimisioa aurkezten badu, izendatu zuen organo eskudunak ebaluatu beharko du hori.

5.- Edonola ere, lehenengo urtean zehar jasotako gaitzespenak pilotzeagatik kontuan hartuko dira Erakundearen Etika Batzordeak egin beharreko proposamenetarako.

3

*Gipuzkoako lurralde
historikoko Foru
sektore publikoko
erakundearen etika
batzordea.*

1. ARTIKULUA. SORRERA ETA ATXIKIPENA

1

Foru dekretu honen bidez sortzen da Erakundearen Etika Batzordea izeneko berme organoa: Gipuzkoako Foru Administrazioiko eta foru sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateetako kargu publikoen nahiz langile baliokideen Jokabideen eta Jardunbide Egokien Kodean aurreikusitakoa.

2

Erakundearen Etika Batzordeak independentzia funtzionala eta erabateko autonomia izango ditu.

3

Bere jarduerarako beharko dituen baliabide teknologiko, pertsonal eta juridikoak izan ditzan eta horretarako bakarrik, Batzordea Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuari atxikita egongo da; edo bestela, horren eskumenak bereganatzen dituen departamentuari.

2. ARTIKULUA. XEDEA

1

Batzordearen xedea hau izango da: sustatzea eta bermatzea Gipuzkoako Foru Administrazioiko eta foru sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateetako kargu publikoen nahiz langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean jasotako balore, printzipio eta jokabide arauak hedatu, barneratu eta behar bezala betetzen direla.

2

Horrenbestez, ondorengo kargu publikoekin zein kargu baliokideekin zerikusia duten gaietan gauzatuko ditu 3. artikuluan aurreikusitako eginkizunak Batzordeak:

- a) Diputatu nagusia eta foru diputatuak.
- b) Zuzendari nagusiak.
- c) Foru sektore publikoko entitateetako zuzendari eta gerenteak.
- d) Foru sozietate publikoetako Administrazio Kontseiluetako kideak.
- e) Foru Aldundiari atxikitako kontsortzioetako gobernu organoetako kideak.
- f) Beraien sorrerako arauan edo izendapenean aurreko karguei baliokidetuak izan direnak.
- g) Aholkularitza funtzioa duten behin-behineko langileak.

3. ARTIKULUA. EGINKIZUNAK

Erakundearen Etika Batzordearen eginkizunak hauek izango dira:

a) Kargu publikoen jardunean sor daitezkeen jarrera desegoki hipotetikoaren prebentzioa, era horretan, Foru Aldundiaren irudia eta klima etikoa babestu eta bermatzeko.

b) Ebazpen, txosten edo oharren bidez, kargu publikoek egindako kontsultak eta azaldu-tako zalantza eta dilema etikoak ebaztea.

c) Jokabideen eta Jardunbide Egokien Kodean jasotako balore, printzipio eta jokabide arauak ez betetzeagatik aurkezten diren kexa edo salaketak bideratu eta horiek ebaztea. Ebazpen horiek Foru Aldundiari edo foru sektore publikoko gainerako entitateetako gobernu organoei zuzendutako proposamenak izan daitezke, haiek dagozkien erabakiak har ditzaten.

d) Batzordearen jarduerari buruzko urteko txostena egitea; eta, beharrezkoa bada, Jokabi-deen eta Jardunbide Egokien Kodeko edukiak aldatzeko edo egokitzat jotzen diren neurriak hartzeko proposamenak egitea.

e) Jokabideen eta Jardunbide Egokien Kodearen Aplikazio Gida egitea eta onartzeko pro-posatzea. Gida horretan, urtero, jokabide arauak zehaztuko dira, Batzordeak urtean zehar jasotako kontsultak, egindako ebazpenak eta behatutako ebidentzia enpirikoak oinarritzat hartuta.

f) Etika publikoaren inguruko prestakuntza eta gaitasun programak proposatzea.

4. ARTIKULUA. OSAERA

1

Erakundearen Etika Batzordeak ondorengo osaera izango du:

a) Lehendakaria: Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko foru diputatua; edo bestela, funtzio horiek esleitzen zaizkion departamentuko foru diputatua.

b) Batzordekideak:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko kargu publiko bat, zuzendari nagusiaren edo baliokidearen maila edo lerrunekoa.
- Hiru pertsona, Foru Aldundikoak ez direnak eta artikuluko honen 4. atalean adierazitako beharkizunak betetzen dituztenak.

c) Idazkaritza: Gipuzkoako Foru Aldundiko Araubide Juridikoko Zuzendaritza Nagusiko burua. Hitza izango du, baina ez botorik.

2

Kargu horiek hutsik geratuz gero, edota absentsia edo gaixotasun kasuetan, eta, oro har, justifikatutako arrazoiren bat dagoenean, Batzordeko kideak ordezkoei ordeztu ahal izango dituzte, ordezkorik balute.

3

Erakundearen Etika Batzordeko kideak Diputatuen Kontseiluaren erabaki bidez izendatuko dira, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko foru diputatuak proposatuta.

4

Kanpoko kideak bere esparru profesionalean ospe eta eskarmentu egiaztatua duten pertsonen artean izendatuko dira; eta izendapena egiten den unean ezingo dute inolako lotura organikorik eduki, ez Foru Administrazioarekin, ezta foru sektore publikoko gainerrako entitateekin ere.

Kanpoko kide horiek zerbitzuagatik kalte-ordainak jasoko dituzte soilik eta, hala balegokie, asistentziengatik dietak, Foru Aldundiak zehazten dituen baldintzetan jaso ere.

5

Erakundearen Etika Batzordeko kideak behartuta daude beren jardunean ezagutu ditzaketen informazio oro isilpean gordetzera; eta, bereziki, aztertutako gertakari edo egitateei buruz, ikerketen eta eztabaiden edukia eta hartutako erabakiei buruz eta izaera pertsonaleko datuei buruz. Halaber, ez dute egingo aipatutako guztiari buruzko inolako adierazpen publiko zein pribaturik; ezta Batzordea jorratzen diharduen prozedurari buruz ere.

Prozeduraren azken erabakiak bakarrik eman ahal izango dira jakitera: behin pertsona interesdunari edo interesdunei jakinarazi ondoren eta foru dekretu honen 6. eta 7. artikuluek aurreikusi moduan.

6

Batzordearen osieran emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatuko da.

7

Foru Administrazioak beharrezko baliabideak, tresnak eta euskarri teknikoa emango dizkio Batzordeari; eta bere eginkizunak betetzeko behar dituen baliabide teknologiko, pertsonal eta juridikoak jarriko ditu haren zerbitzura.

5. ARTIKULUA. FUNTZIONAMENDUA

1

Sei hilean behin bilduko da Batzordea gutxienez, Lehendakariak Idazkaritzaren bidez horretarako deialdia egin ondoren.

Edonola ere, Batzordeak ezagutu beharreko gai edo kontsulta bat dagoenean, bilkura deialdia egingo da.

2

Batzordearen bilkurak aurrez aurrekoak edo bitarteko elektronikoen bidezkoak izan daitezke.

3

Foru dekretu honetan aurreikusi gabeko gaitan, administrazio publikoetako kide anitzeko organoentzat ezarritako araudiari egokituiko zaio Batzordearen funtzionamendua.

6. ARTIKULUA. PROZEDURAK BIDERATZEA

1

Erakundearen Etika Batzordearen aurrean aurkezten diren kontsulta, kexa edo salaketak bideratu eta ebazteko prozedurak arinak izango dira, eta ez dute eskakizun formal berezirik izango. Kontsulta, kexa edo salaketa egiten duen pertsonaren identifikazioa eskatuko da soilik; baina Jokabideen eta Jardunbide Egokien Kodean xedatutakoari jarraikiz, objektiboki beharrezkoa denean, informazio hori isilpekoa izango da.

2

Foru Aldundiak, Erakundearen Etika Batzordeak hala proposatuta, kontsultak, kexak edo salaketak izapidetzeko protokolo bat ezarri ahal izango du.

3

Kontsulta, kexa edo salaketa prozedura horiek bitarteko elektronikoen bidez izapidetuko dira ahal bada, konfidentziasun arazoak direla eta bitarteko elektronikoen erabiltzea egokia ez denean izan ezik.

4

Kontsultaren bat ahoz egiten bada, bere edukia idatziz jaso beharko da, eskatutako konfidentziasunari eustea eragotzi gabe.

5

Kodearen aplikazioa dela eta dituzten zalantza edo arazo etikoen zein jokabideari buruzko zalantza nahiz dilemen kasuan, horiek isilpean bideratzea eskatzeko aukera egongo da; bereziki, norberaren edo familiaren oinarrizko eskubideak arriskuan jartzen badira eta horiek babestu behar badira.

Konfidentziasun hori behar bezala betetzen dela bermatu beharko du Batzordeak, baita informazioa behar bezala gordeta dagoela ere. Horrenbestez, dagozkion datu pertsonalak ezabatu ondoren bakarrik argitaratu ahal izango da informazio hori, baldin eta zuzenean ala zeharka pertsonaren nortasuna konprometitu ezin bada.

7. ARTIKULUA. KEXAK ETA SALAKETAK BIDERATZEA ETA SALATZEA

1

Erakundearen Etika Batzordeak ofizioz edo kexa ala salaketa bidez jardun ahal izango du.

2

Garatutako jardueretan ez bada Jokabideen eta Jardunbide Egokien Kodean xedatutako ez-betetzerik antzematen, Batzordeak kexa edo salaketa artxibatzea ebatziko du. Ebazpen hori behar bezala arrazoituta egongo da beti.

3

Kargu publikoaren jokabideak Kodean xedatutako baloreak, printzipioak eta jokabide arauak ez betetzea dakarrela antzematen bada, hari entzunaldia eman ondoren, Erakundearen Etika Batzordeak ebazpen bat hartuko du, modu honetan:

a) Ondorioei begiratuta, ez-betetzea ez bada oso nabarmena, ebazpena gaitzestekoa izango da; eta hori Foru Aldundiaren Gardentasunaren Atarian argitaratuko da.

b) Ondorioei begiratuta, ez-betetzea nabarmena bada, ebazpena egindakoagatiko ardurari buruz ohartaraztekoa eta gaitzestekoa izango da; eta kargu publiko hori izendatu zein kargutik kentzeko eskumena duen organoari jakinaraziko zaio, gertatutakoaren berri izan dezan.

c) Ondorioei begiratuta, ez-betetzea oso nabarmena bada eta eragin instituzional oso larriak sortzen baditu, ebazpenak kargu publiko hori kargutik kentzeko proposamena jasoko du; eta organo eskudunari helaraziko zaio, dagokiona erabaki dezan.

4

Ondorio apalak, nabarmenak ala oso nabarmenak eta eragin instituzional larriak sortzen dituen ez betetzea den zehazteko, pertsonaren jokabideaz gain, jokabide horrek erakundearen irudiari egindako kalte objektiboa ere kontuan hartuko da. Graduazio hori aplikatzeko orduan, proportzionaltasunaren printzipioa beteko da.

5

Agintaldi berean, gaitzesteko bi ebazpen jasotzen badira, ohartarazteko eta gaitzesteko ebazpena emango du Batzordeak. Hirugarren gaitzespen ebazpen batek kargu publiko hori kargutik kentzeko proposamena daraman ebazpena ekarriko du.

6

Ohartarazteko eta gaitzesteko bi ebazpen jasotzeak kargu publiko hori kargutik kentzeko proposamena daraman ebazpena ekarriko du.

7

Erakundearen Etika Batzordeak hartutako ebazpenak erreferentzia izango dira organo eskudunak hartu behar duen erabakia hartzerakoan.

8

Administrazio zigorra edo zigor penala merezi duten jokabideak eskumena duen organoari jakinaraziko zaizkio lehenbailehen.

XEDAPEN IRAGANKORRA. EBAZPENEN ARAUBIDE IRAGANKORRA

1

Jokabideen eta Jardunbide Egokien Kodea indarrean dagoen lehenengo urtean, Erakundearen Etika Batzordeak gaitzespen ebazpenak bakarrik eman ahal izango ditu; hau da, ezingo du inor kargu publikotik kentzeko proposamenik egin. Hala ere, norbait kargutik kentzea eskatzen duen egoera objektiborik sortzen bada, hori ebazpenean zehaztuko da eta kargu publikoaren esku utziko da karguan jarraitu edo dimisioa aurkezteko erabakia. Dimisioa aurkezten bada, izendatu zuen organo eskudunak ebaluatu beharko du hori.

2

Edonola ere, lehenengo urtean zehar jasotako gaitzespenak kontuan hartuko dira Erakundearen Etika Batzordeak horrelako ebazpenak pilatzeagatik egin beharreko proposamene-tarako.

AMAIERAKO XEDAPENA. INDARREAN JARTZEA

Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Gai publikoak kudeatzeko zintzotasuna beti izan da gure lurraldearen eta herriaren izaeraren parte. Globalizazioa eta lehiakortasuna hain presente dauden honetan, gure izaeraren ezaugarri diren seriotasuna, zintzotasuna eta lanarekiko ardura are gehiago sustatu behar dira.

Horretan sinesten dugulako, Gipuzkoako Foru Aldundiak Erakundearen Zuzentasun Sistema aurkezten du, horren bidez geureak ditugun etika publikoa eta eredugarritasuna bermatu eta Gipuzkoa eredugarri bat eraikitzeko asmoz.

Sistemak Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea hartzen du barne, eta bertan biltzen dira foru administrazioan eta foru sektore publikoan zuzenean zein zeharka jarduten duten pertsona guztiek onartu beharreko balioak, printzipioak eta jokabide arauak. Horrela, balio horiekin lan egiteko konpromisoa hartzen dugu, bai gure ardura publikoa gauzatzen dugun bitartean, bai eta Aldundiaren irudi onean eragin publikoa izan dezaketean jarduera pribatuetan ere.

Erakunde publikoko kargudunen jarduna Foru Aldundiaren irudia islatzen duen ispilua da. Horrexegatik sinatzen dituzte kargudunek ordezkari, zuzentasun, eredugarritasun, zintzotasun eta eskuzabaltasun printzipioak, bai eta erabakiak hartzeko objektibotasunari, profesionaltasunari, kudeaketa eraginkorrari eta bizikidetzaren errespetuari dagozkienak ere. Balio horiek guztiak kodean zehazten dira espresuki, jokabide arau multzo baten bidez.

Kodea ez da, ordea, aplikatzeko eskakizunik eta ondorio praktikorik gabeko printzipio formulazio soil. Aldi berean, berme organo gisa, erakundearen etika batzorde bat eratzen da, batzorde hori kodea betearazteaz arduratuko delarik. Batzordearen izaera independentea bermatuta dago, hitza eta botoa duten bost kideetatik hiru kanpokoak izango baitira (gure inguruan ohiz kanpokoak dena); esperientzia eta prestigio aitortua duten pertsonak izango dira, gainera, eta independentzia funtzionala eta erabateko autonomia izango dute, bai ofizioz jarduteko, bai eta kexa edo salaketa bati erantzunez jarduteko ere.

Sistemak ez du soilik dimentsio etikoa hartzen; bideratuta dago, halaber, herritarrentzako zerbitzuen mesedetan Aldundiaren errendimendua hobetuko duten kudeaketako praktika onak garatzera: esaterako, informazio publikoaren inguruko eskariei erantzun azkar eta eraginkorra ematen zaiela bermatzea, euskararen erabilera bereziki zaintzea, informazio publikoaren berrerabilera sustatzea, desburokratizazioa edo prozedura eta tramiteak erraztea, eta sareko lana egitea.

Aldundiak abian jarri duen egitura hau berezia eta berritzailea da zentzu askotan, Gipuzkoako idiosinkrasiara egokitua, orain arte eskura zeuden ereduak jarraitzen ez duelarik.

Ez guke autokonplazentzian erori nahi. Urrats garrantzitsua egin dugu, bere xumean. Baina zuzentasunaren aldeko borroka prozesu jarraitua da, etenik gabea: egun jakin batean abiarazten bada ere, ez du amaiera-datarik. Ez dugu etika kosmetika balitz bezala saldu nahi; etika etengabe hobetuko duen prozesu bat abiarazi nahi dugu, Aldundiaren parte garen guztion eguneroko jarduna oinarri hartuta.